

@@@IRAGARKIA, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren zuzendariarena, 11.0041.48.02.01.02 administrazio-errekurtsoaren espedientea –230/2011 administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokiona– bidaltzeko eta hirugarren interesdunak epatzeko dena.@@@

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jauna ezin izan da aurkitu bere helbidean (XXXXXX kalea, XXXXXX). Jakinarazten zaio, horrenbestez, espedientea bidal dakiola eskatu duela Bilboko Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko Epaitegiak. Espedientea Suministros Montajes Electromecánicos del Norte, S.L., RCA sozietateak hasi zuen, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Lan Zuzendaritzaren 2011ko martxoaren 7ko Ebazpenaren aurka.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49. artikuluan xedatutakoa betez, epatu egiten da XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jauna, eta aipatutako prozedura judizialean agertu eta pertsonatu daitekeela jakinarazten zaio. Bederatzi egun izango ditu horretarako, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 6a.

Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren zuzendaria,  
MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE.